

H DBH2

2018/2019



Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Taldea:

Herria:

Data:

Irakurmena

DBHko 2. maila



Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

BIZITZAREN MUGA

Jainkoak mundua sortu eta kreatura guztiei bizitzeko epea zehaztu nahi izan zienean, astoa agertu zen eta galdetu zion:

– Jauna, zenbat denbora biziko naiz?

– Hogeita hamar urte –erantzun zuen Jainkoak–, ondo iruditzen zaizu?

– Zera, Jauna –erantzun zuen astoak–, denbora gehiegi da hori. Kontu egiozu nire bizimodu petralari: zama gogorak garraiatu beharra goizean hasi eta iluntzea arte, errotara arto-zakuak eraman beharra beste guztiek ogia jan dezaten, eta niretzat ukaldiak eta ostikadak besterik ez, ernetu eta bizitu nadin! Barkadazu bizialdi luze horren zati bat.

Errukitu zen Jainkoa eta eman zizkion hamazortzi urte. Alde egin zuen handik astoa kontsolaturik, eta txakurra azaldu zen.

– Zenbat urte bizi nahi duzu? –esan zion Jainkoak txakurrari–. Astoaren iritzian hogeita hamar urte gehiegi dira, baina zu konforme egongo zara horiekin.

– Jauna –erantzun zuen txakurrak–, ba ote da hori zure nahia? Kontu egin ezazu zenbat ibili beharko dudan arineketan; nire hankek ezingo dute hori jasan; eta behin galduz gero zaunka egiteko ahotsa eta kosk egiteko haginak, beste eginbeharririk ez dut izango, ez bada zoko batetik bestera marmarka ibiltzea.

Ohartu zen Jainkoa txakurrak arrazoia bazuela, eta eman zizkion hamabi urte. Gero tximinoa azaldu zen.

– Zu ederki asko biziko zinateke hogeita hamar urtean –esan zion Jaunak–. Ez duzu astoak eta txakurrak adina lan egin beharrik, eta umore onean egoten zara beti.

– Zera, Jauna –erantzun zuen–, hala dirudien arren, bestela da. Zopa dagoenean, koilara dut falta. Beti egin behar izaten ditut txantxak, aurpegiarekin imintzioka ibili beharra jendeak barre egin dezan, eta sagarren bat lortu eta haginka egiten diodanean, mikatz egoten da. Maizegi gorde ohi da tristura txantxaren atzean! Hogeita hamar urte ezin izango nituzke jasan.

Errukitu zen Jainkoa eta eman zizkion hamar urte.

Agertu zen, azkenik, gizakia alai, sasoiko eta sendo, eta eskatu zion Jainkoari bizitzeko muga esan ziezaiola.

- Hogeita hamar urtez biziko zara –esan zuen Jaunak–, aski duzu?
- Bai bizialdi laburra! –esan zuen gizakiak–. Etxea eraiki, nire beheko sua sugarretan hasi eta nik landatutako arbolak loratu eta fruituak ematen hasi orduko, pozez biziko naizela uste dudan unean, horra hil beharra! O, Jauna, luza ezazu nire bizitza.
- Erantsiko dizkizut astoaren hamazortzi urteak –esan zuen Jainkoak.
- Hori ez da nahikoa –erantzun zuen gizakiak.
- Baita txakurraren hamabi urteak ere.
- Oraindik ere gutxi da.
- Tira ba! –esan zuen Jainkoak–, emango dizkizut tximinoaren hamar urteak, baina ez duzu besterik izango.

Abiatu zen gizakia, pozik ez ordea.

Beraz, gizakia hirurogeita hamar urtez bizi ohi da. Lehenengo hogeita hamarrak haren giza urteak dira eta azkar igarotzen zaizkio; urte horietan sasoiko egoten da, alai, gogoz egiten du lan eta poza hartzen du bere bizimoduarekin. Gero astoaren hamazortzi urteak datoz; zamak bata bestearen ondotik pilatzen zaizkio: garia garraiatu, besteei jatekoa eman beharra; eta kolpeak eta ostikadak ditu lan leial horrentzako saria. Handik gerora etortzen dira txakurraren hamabi urteak; bazter batean egoten da etzanda purrustaka, eta ez du haginik kosk egiteko. Eta garai hori igarota, tximinoaren urteek osatzen diote amaiera. Orduan gizakia txotxolotu egiten da, susterbakokeriak egiten ditu, eta umeek hari iseka.

Grimm anaien ipuinak, Pamiela, 1999.

(moldatua).

1. Zenbat izaki bizidunekin hitz egiten du Jainkoak?

- A. 2.
- B. 3.
- C. 4.
- D. 5.

2. Ea zenbat urte bizi nahi zituen galderari nork erantzuten dio beste galdera batekin?

- A. Tximinoak.
- B. Gizakiak.
- C. Astoak.
- D. Txakurrak.

3. Zein da testuan agertzen den “aski” hitzaren sinonimoa?

- A. Nahikoa.
- B. Konforme.
- C. Maizegi.
- D. Asko.

4. Zergatik iruditzen zaio bizialdi laburra gizakiari Jainkoak eman nahi dizkion 30 urteak?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Gizakiari bizialdi laburra egokitu zaiola adierazten badu. Adibidez: “Lan egin ondoren hilko litzatekeelako”.
2	Gizakiari bizialdi laburra egokitu zaiola zoriontsu izaten hasten denerako adierazten badu. Adibidez: “Lan egin ondoren hilko litzatekeelako, gozatu gabe”.

5. Jainkoak guztiei arrazoa ematen die, gizakiari ez. Non ageri da ez dagoela konforme? Bilatu esaldia testuan eta idatzi.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<i>“Tira ba!... baina ez duzu besterik izango”.</i>

6. Zergatik haserretzen da Jainkoa gizakiarekin?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hauetako erantzunen bat edo antzeko ideia adierazten duen bat: - <i>“Asko eskatzen diolako”</i> - <i>“Eskainitakoarekin konforme ez dagoelako”</i> - ...

7. Zein ordenari jarraitzen dio gizakiaren bizitzak?

- A. **Gizakia - astoa - txakurra - tximinoa.**
- B. Astoa - gizakia - tximinoa - txakurra.
- C. Gizakia - astoa - tximinoa - txakurra.
- D. Gizakia - txakurra - astoa - tximinoa.

8. Osa ezazu taula, behean dituzun elementuak erabiliz.



ANIMALIA	URTEAK	ARRAZOIA
Astoa	18	Zama gogorak eramatea
Txakurra	12	Arineketan ibiltzea
Tximinoa	10	Tristura

Zuzenketerako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Bat ere ez edo hirukote bat zuzen.
1	Bi hirukote zuzen.
2	Hiru hirukoteak zuzen.

ERLEEN DOHAIN EZEZAGUNA


Denok dakigu zer diren erleak. Denok dakigu ez ditugula oso maite, gerturatuz gero uxatzen saiatzen baikara. Askotan, beldurra izaten diegu; beste askotan, nazka. Denok dakigu zer diren erleak. Bai, baina ba al dakigu zertarako gai diren? Ba al dakigu zein dohain dituzten? Ba al dakigu apiterapia zer den?

Apiterapiak eraso egiten die gure organismoan dauden gorputz arrotzei; horregatik, modu batera edo bestera, giza gorputzari laguntzen dion terapia osagarria da apiterapia. Haren erabileren artean, osasuna berreskuratzea, gaixotasunak saihestea eta bizimodu neketsuari aurre egitea daude.

Euskal Herrian arrotza izan arren, nazioartean indar handia hartzen ari da, Hego Ameriketako herrialdeetan, batez ere.

Erlearen eboluzioa

Erlea gizakia baino lehenago sortua da. Lehenengo erleak Baltikoko itsasoan aurkitu zituzten, anbarretan txertaturik. Geroztik, hainbat aztarna aurkitu izan dituzte; horietako bat, esate baterako, Mesolitoan aurkituriko marrazki bat da: emakume bat ezitia biltzen, hain zuzen ere.



Garai batean, oso ohikoa zen baserrietan erleak edukitzea, naturarekin lotura estua izanik probetxu handia ateratzen baitzieten erleen produktuei. Ohitura hori, ordea, galduz joan da, eta gaur egun gero eta erletegi gutxiago dago.

Hasieran, erle basatiek gogoko izaten zuten zuhaitzetako zuloetan kokatzea. Gizakiak, ordea, zuhaitzen tankerako lehen erlauntza prestatu zuen, eta bertan batzen ziren. Egun, gehienak erlauntzetan biltzen dira.

Apiterapian erabiltzen diren produktuen inguruko datuak

EZTIA

- **Osaera.** Karbohidratoak %75-80, proteinak %0,38, hezetasuna %17-20, azidoak %0,1 eta mineralak %0,2.
- **Erabilerak.** Kirolari eta adinekoentzako elikagai gisa erabiltzen da. Erredurak sendatzeko, zauriak ixten laguntzeko eta larruazala babesteko ere erabili ohi da.

POLENA

- **Osaera.** Karbohidratoak %40, lipidoak %5, protidoak %35 eta bestelakoak (bitaminak, mineralak, betakarotenoak, kerzetina edota rutina) %20.
- **Erabilerak.** Kirolarientzat eta Downen sindromea duten haurrentzat erabiltzen da, anemia kasuetan, suspertze eta estimulatze arloan ere bai. Desintoxikatze prozesuetan, begietako gaitzetan, hezur eta giltzaduretako arazoetan eta prostatitisaren prebentzioan ere erabili ohi da polena.

PROPOLIA

- **Osaera.** Erretxina %80 (berezko olioak eta argizaria %25), substantzia lurrunkorrek %10, polena %5 eta zakarra %5.
- **Erabilerak.** Besteak beste, bakterioei, parasitoei, tuberkulosiari, birusei eta alergiei kontra egiteko eta analgesiko eta anestesiko gisa erabiltzen da.

ERREGINA-JELEA

- **Osaera.** Ura %68, proteinak %12,0, azukreak %8,5, lipidoak %5,6 eta errautsak %0,8.
- **Erabilerak.** Mikroelementu eta antibiotiko natural asko ditu; burmuina bizkortzeko eta astenia sendatzeko erabiltzen da, baita arlo kardiobaskularrean eta hipotentsio kasuetan ere.

APITOXINA (ERLEEN POZOINA)

- **Osaera.** 2 petido (melitina %50, apamina %0,3), 2 entzima (fosfolipasa eta hialuronidasa), histamina, hainbat azido (fosfatoa, triptofanoa, kolina...) eta mikroelementuak (burdina, zinka, sufrea, kaltzioa, magnesioa...).
- **Erabilerak.** Hezurretako mina (artritisa, esklerosia, artrosia eta erreuma), esklerosi anizkoitza, parkinsona eta bronkioetako asma sendatzen laguntzeko; eta antialergiko, analgesiko, antiinflamatorio eta estimulazaile gisa.

9. Zein da “uxatzen” aditzaren baliokidea?

- A. Hurbiltzen.
- B. Hartzen.
- C. Astintzen.
- D. **Urruntzen.**

10. Zergatik da ona apiterapia?

- A. Gure gorputzari sendatzeko terapia egiten laguntzen diolako.
- B. **Gure organismoa kaltetzen duten gorputz arrotzei eraso egiten dielako.**
- C. Erleak onak direlako.
- D. Erleek terapia bat osatzen dutelako.

11. Apiterapiaren zenbat erabilera aipatzen dira testuan?

- A. Asko.
- B. Bi.
- C. **Hiru.**
- D. Lau.

12. Non eta nola aurkitu zituzten lehenengo erleak?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzen bat .
2	Bi erantzun zuzen. Erantzun zuzenak: - “Baltikoko itsasoan” - “Anbarretan txertaturik”.

13. Noiztik erabiltzen ditu gizakiak erleen dohainak? Zer aztarnak erakusten du erabilera hori? Bilatu testuan galdera horiei erantzuten dien esaldia.

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<i>"Mesolitoan aurkituriko marrazki bat da: emakume bat ezitia biltzen".</i>

14. Hasiera batean erleak non bizi ziren?

- A. Baserrietan.
- B. Zuhaitzetako zuloetan.
- C. Erlauntzetan.
- D. Etxeetan.

15. Burmuina bizkortzen duenez, zein da ikasleentzako produkturik egokiena?

- A. Polena.
- B. Propolia.
- C. Erregina-jelea.
- D. Ezitia.

16. Produktu guztien artean, zein da elikagai gisa erabiltzen dena?

- A. Apitoxina.
- B. Propolia.
- C. Erretxina.
- D. Ezitia.

17. Alergiak jota bagaude, zein produktu komeni zaigu hartzea?

- A. Eztia.
- B. Polena eta propolia.
- C. Erregina-jelea.
- D. Propolia eta apitoxina.

18. Produktu batek beste produktu bat dauka bere osagaien artean. Zeinek? Zein ehunekotan?


.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzen bat .
2	Bi erantzun zuzen. Erantzun zuzenak: - "Propoliak polena" - "%5ean".

MILA ESKER IRAKURLE

“**Ez dira betiko garai onenak**” zioen Hertzainak taldearen **Aitormena** abesti ezagunak. Olatu teknologiko-digitalaren inpaktuak paperezko euskarrien zimenduak dardarka utzi izanak garai zailagoetara bizitzera eraman gaitu. Horregatik, zuretzako espresuki eraiki dugun denboraren makina berezi baterako txartel hau bidaltzea erabaki dugu. Funtzionamendua oso erraza da, jarraian datozen lerroak irakurtzen dituzun bitartean, zure garunari iraganera bidaiatu dezala eskatu, besterik ez.

2000. urtean, GAZTETXULO izena soinean genuela hasi zen gure ibilbidea aldizkari gisa. 18 urteko ibilbide honetan, **etengabeko bilakaera** izan dugu, diseinuan, edukietan eta baita euskarrietan ere. Baina **GAZTEZULO ez da hilabetekari hutsa, komunikazio proiektu osoa baizik** eta aldizkari xumea zena proiektu handiagoa bilakatu da, bere esparrua zabalduz:



★ **GAZTEZULO.EUS** webgunea teknologia berrietara egokitu dugu egunez egun sareko irakurleei albiste interesgarriak eta eduki eksklusiboak eskaintzeko.

★ **SARE SOZIALAK.** Jarraitu @gaztezuloren harrikadak Facebook, Instagram, Twitter edo Pinterest kontuetan!

★ **GTB** (GAZTEZULO TELEBISTA) sortu dugu. Euskal Herriko kultura erreferenteen plaza. Bota begirada bat Youtubeko kanalari!

★ **BEITU!** nerabeek mugikorrean jasotzen duten komunikabidea. Informazio guztia eskura, atzamarkada batez.

★ **IKA MIZKA.** **Eta hik nola bizi dink euskara?** lelopean unibertsitateko ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa.

★ Gezurra badirudi ere, **GAZTEZULO BIDEO LEHIAKETA** mitikoak 9 urte bete ditu!

Proiektu hauek guztiak aurrera ateratzeko, denboraren makina berezi honek erregai asko behar du, eta **behar bezala funtzionatzeko behar duen elikagai hori ZU ZARA.** Harpidetzaren bitartez eskaintzen diguzun babes hori, gure eguneroko gasolina bilakatu da.

Gure helburua ez da sekula ekonomikoa izan, **kalitatezko eta mugarik gabeko euskarazko edukia** eskaintzea baizik. Aldizkariaz gain, proiektu hauek guztiak DOAKOAK eta IREKIAK izaten jarraitzeko, zure babesa ezinbestekoa dugu. Horregatik, 2015etik aurrera, aldizkariko harpidetzaren prezioa ez igotzea erabaki genuen, **22 euro horiek guretzat bidaia jarraitzeko ezinbesteko erregaia** direlako.

ESKERRIK ASKO beraz, euskarazko edukien aldeko apustua egitea erabaki duzulako. ESKERRIK ASKO 18 urte hauetan gure bidaide izateagatik. Eta batez ere, ESKERRIK ASKO guztion artean eraikitzen ari garen bidaia polit honen ibilbidea sendotzen jarraitzen duzulako.

Tartel hau erabat transferigarria da; zure inguruan GAZTEZULOKIDE izateko interesa izan dezakeen edozeini pasa diezaiokezu.

Etorkizunean elkar ikusiko dugulakoan, eskerrik asko GAZTEZULO lantalde eta kolaboratzaile guztien partez!



gaztezulo



Katalina Eleizegi 36, behea. 20.009 - Donostia

640122382   943 457 250

19. Noiz hasi zen aldizkariaren ibilbidea?

- A. 2000. urtean.
- B. 2001. urtean.
- C. 2009. urtean.
- D. 2018. urtean.

20. Noiz aurki dezakegu kioskoetan aldizkaria?

- A. Batzuetan.
- B. Astero.
- C. Hilabetero.
- D. Hamabostean behin.

21. Tren zahar baten argazkia dago, zer irudikatzen du horrek?

- A. Denboraren makina.
- B. Iraganeko trenak zaharrak direla.
- C. Iraganera bidaia.
- D. Orain dela urte asko bidaiatzen zela.

22. Orain dela zenbat urte sortu zuten bideo lehiaketa ?

- A. Aldizkaria sortu eta 10 urte pasa ondoren.
- B. Aldizkaria sortu eta 9 urte pasa ondoren.
- C. Aldizkaria sortu eta berehala.
- D. Aldizkaria sortu eta 7 pasa ondoren.

23. “2015etik aurrera aldizkariko harpidetzaren prezioa ez igotzea erabaki genuen, 22 euro horiek guretzat bidaia jarraitzeko ezinbesteko erregaia direlako”. Zer esan nahi du esaldiak?

- A. 22 euro horiek nahikoa direla.
- B. 22 euro nahi dituztela.
- C. 22 euro gutxi direla.
- D. 22 euro asko direla.

24. Zer da testu hau?

- A. Gutuna.
- B. Albistea.
- C. Txartela.
- D. Oharra.

25. Zergatik “Mila esker irakurle”?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hauetako erantzunen bat edo antzeko ideia adierazten duen bat: - “Informazioa irakurtzeagatik”, - “Gaztezulo erosi eta irakurtzeagatik”. - “Proiektuan ekarpena egiteagatik”

26. Zein izen zuen hasieran Gaztezulo aldizkariak?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	“Gaztetxulo”